# HURRENGO IRTEERA

PRÓXIMA SALIDA • PROCHAINE SORTIE

2020ko uztailak 3 OSTIRALA

**GARA**ren udako gehigarria

## IRUÑEA, EN CALMA



Argazkia: **Jagoba MANTEROLA | FOKU**

**2-5 >** La incertidumbre reina en el sector hostelero de Iruñea en los días previos al 6 de julio. **8 >** El Encino de las Tres Patas de Mendaza, noveno en el concurso del Arbol Europeo de 2020. **9 >** Agenda. **10-11 >** Baztan y Bertiz Abentura Park, una oportunidad para sentir la libertad. **14-15 >** Geltoki, referente de la economía social y solidaria, la soberanía alimentaria y la cultura en Iruñea. **16 >** Asier Etxepeteleku (Lesakako Arrano Ostatua): «Aurten, uda hilabete aurreratu da Lesakan».

**Imanol Azkona**
Iruñeko Peñen Federazioko presidentea

## «Iruindarrei helarazi nahi diegun mezua da arduratsu jokatzeko» > 6-7




**Ladis Satrustegi**
Lesakako alkatea

## «Lesakarrek ulertu dute egoera eta badakite hartu beharreko erabakia zela» > 12-13

Incertidumbre. Es la palabra que mejor define la situación en la que se encuentra el sector de la hostelería de Iruñea en estos días previos al 6 de julio. Sus protagonistas dan por hecho que la suspensión de los sanfermines va a suponer un fuerte golpe económico, aunque salga más gente que en un día normal. Algo que, paradójicamente, podría no ser una buena noticia si la cosa se desmadra. Y en cuanto al verano, esperan seguir contando con la clientela local para poder empezar a salir del agujero poco a poco.

## Nerea SAEZ BAZTAN
TERMINAL TABERNA (IRUÑEA)

# *«El problema va a estar en la calle, no en los bares»*



Nerea Saez, del bar Terminal, que empezó con una mesa y dos clientes. I.A.

Iruñe ASTITZ LARUNBE | **IRUÑEA**

**¿Cómo han vivido todo el proceso de desescalada hasta llegar a la situación actual?**
Abrimos el 12 de mayo con una mesa y con dos personas en la mesa. Yo vivo en frente del bar y no quería estar en casa más tiempo. Como soy autónoma y trabajo en el bar, no tengo más que cruzar la calle, tener el bar con una mesa afuera no nos suponía ningún gasto. Por lo menos entraba algo de dinero, porque, de no entrar y tener todo gastos fijos a que entre algo...

También es, sobre todo, para acostumbrar a la gente a venir porque el miedo era de ‘vamos a estar cerrados hasta última hora y la gente se va a acostumbrar a ir a otros sitios’. Así que yo decidí abrir desde las 13:00 para el vermout, cosa que en los 35 años que tiene el Terminal, no se había hecho en la vida.

Pedimos la ampliación de terraza que pese a contar con un permiso con la firma de todos los vecinos, nos la dieron super-super tarde. Una vez que la concedieron, ahora ya podemos sacar cuatro mesas a lo largo de la fachada. Avanzando en las fases hemos puesto unas mesas dentro del bar cuando quitamos la terraza y hemos acostumbrado a la gente a utilizarlas y la verdad es que funciona.

**¿Cómo va a influir el que no haya sanfermines este año?**
Creo que todos nos hemos hecho a la idea de que no va haber sanfermines. ¿Sabemos que vamos a trabajar esa semana más del o normal? Sí, pero no hay sanfermines. El 6 de julio es lunes y tenemos un horario hasta las 3:30 de la mañana. Yo no creo que el problema vayan a ser los bares en el tema de sanfermines. El problema va a ser, qué vas a hacer con toda esa gente a partir de las 3:30 de la mañana. Porque las discotecas no pueden abrir para bailar, con lo cual, yo creo que ni abrirán. El problema no va a estar en los bares, va a estar en la calle. Tú no puedes prohibir a la gente que esté en la calle.

Para nosotros, los sanfermines son una paga extra, como lo son también el Aberri Eguna, y Navidad. De cobrar tres pagas, ahora sabemos que estamos sin pagas. El Terminal tiene suerte porque somos los dueños del bar, pero no somos los dueños de la bajera donde está el bar, nosotros tenemos alquiler. El dueño del alquiler nos quitó mayo, porque abril pagamos. Desde la asociación de hosteleros nos dijeron que para julio ya empezaría a estar todo en marcha, así que hicimos cálculos hasta junio. No hemos echado a nadie a la calle, pero como están por horas se les ha tenido que bajar al mínimo. Los únicos que no hemos cobrado hemos sido los tres socios. El bar tiene un dinero para los cambios, entonces, al no haber sanfermines tuvimos que usar ese dinero.

**El verano de este año también va a ser diferente, ¿Cómo visualizan el futuro?**
Nosotros en verano, con las fiestas de los barrios y los pueblos, no solemos trabajar mucho. Esta zona de ‘bares de invierno’ como los llamo yo, al no tener terrazas y ser oscuros, nosotros creemos que este año vamos a trabajar mejor. De hecho, se está trabajando mejor. Ahora que serían fiestas de Donibane, que ya han pasado las de la Txan y la Rotxa, nosotros ya habríamos bajado.

Nosotros en junio trabajamos poquito y se salva con lo que se saca en sanfermines. Lo que está pasando es que este año estamos trabajando, entre comillas «bien», bien para salvar gastos y cobrar.

## Amaiur FELIU MANGADO
MESON DE LA NABARRERIA (IRUÑEA)

# *«Jendeak zintzotasunez betetzen ditu neurriak»*



Amaiur Feliu, lan egiten duen tabernaren aurrean. I.A.

**Konfinamendua hastearekin batera, tabernak pertsiana jaitsita egon zarete pare bat hilabetez. Nola bizi izan duzue egoera?**
Oso egoera larria izan da eta orokorrean pentsamendu txarrak izan ditugu, gure lantokiak eta gure tabernak noiz irekiko genituen ez genekielako.

Horretaz gain, galera ekonomikoak direla eta, jende guztiarekin hitz egiten ibili gara; galdera asko airean eta, orokorrean, ezjakintasuna.

**Behin eta berriz neurri berriak, une oro egin beharreko mahai eta altzari garbiketa, distantzia soziala... Uste duzu konfinamendu aurreko egoerara bueltatzeko aukerarik izango dela?**
Nire ustez, bai, posible izango da aurreko egoerara bueltatzea, baina betiere segun eta birusaren kontua nola garatzen den. Izan ere, pertsona asko asintomatikoak dira eta ez dakigu birusa murrizten ari den edo ez... lehenengo kasuak oso larriak izan ziren. Horren arabera gure jarduna ere moldatzen joango da, inolako zalantzarik gabe.

**Egoera berri honetan kontuan hartu beharreko neurri guztiekin, nolakoa izaten ari da bezeroen erantzuna?**
Jendeak normalean zintzotasunez betetzen ditu neurriak, bai kalean bai komertzioetan sartzean.

Gure komertzioetan, ostalaritzan, badakigu jendea mozkor dagoenean neurriak, agian, pixka bat desberdinak direla, baina bestela, orokorrean, jendea zintzotasunez aritzen da.

**Zer nolako eragina izango du ostalaritza sektorean aurtengo sanferminak bertan behera geratzeak? Aurreikuspenik egin duzue?**
Sanfermin jaiei zein Done Jakue bideari esker Iruñean sartzen diren diru sarreretatik asko tabernentzat, komertzioentzat, hotelentzat eta supermerkatuentzat dira. Denok hartzen dugu dirua hortik.

Ekonomikoki diru sarrera oso handiak dira hiriarentzat. Orduan, hori ez izateak, urte osorako... puf... Normalean, ostalaritzan, otsaila iristerako dagoeneko kinka larrian egoten gara. Beraz, aurten egoera hori lehenago biziko dugula aurreikusten dugu.

**Leire SARALEGI ALVIRA eta Saioa VALDERRAMA ERBURU**

HERRIKO TABERNA (IRUÑEA)

# «Ohitura kontua da eta denok jarri beharko dugu geure alea, bai bezeroek, bai guk»

I.A. | IRUÑEA



Leire eta Saioa, Iruñeako txoko ezagun batean, Nabarreriako iturrian. I.A.

**Konfinamendu aurretik eraberritze lanak hasi zenituzten eta maiatzean berriz irekitzeko asmoa zenuten. Zer nolako eragina izan du koronabirusaren aferak horretan guztian?**
Bi ikuspegi daude: bat positiboa eta bestea negatiboa. Obra egin behar genuen eta momentu egokia zen, zeren konfinamendua suertatu zenez itxita egon behar zuen. Pentsatuta ere ez genuen lortuko horrelako zortea izatea!

Alde negatiboa, obrak behar zuen erritmoa betetzea ezinezkoa izan zela, bereziki kanpotik ekarri beharreko materiala zela eta. Langileak autonomoak badira ere eta lanean jarraitu badute ere, erritmoa ez da bera, egoera ez delako ohikoa.

**Sanferminak bertan behera geratuta eta aurrean bestelako uda bat izanda, nola ikusten duzue etorkizuna?**
Sanferminik ez egotea izugarrizko galera da tabernaren planteamendu ekonomikoari begira. Ezin da ukatu sanferminak Iruñeko edozein tabernarentzat oso garrantzitsuak direla. Herriko Taberna sanferminik gabe bizi daiteke, baina beste modu batera hartuko genukeen dena, zer etorriko zen jakin izan bagenu. Azken finean, planteamendu ekonomikoa bertan behera geratu da, eta, hortaz, guztia aldatu beharko da.

"Herriko"-ak uztail bukaera aldera irekiko ditu berriro ateak eta egungo egoerara egokitu beharko gara. Izan ere, jantokia ezingo dugu goraino bete eta, orduan, bi txanda egingo ditugu, eta, bestetik, terraza handitu egin da. Beraz, bi txanda eginez eta terraza handiagoarekin, espero dugu lehen ematen genuen zerbitzua ematea.

Horretaz gain, beste neurriekin pixka bat polizia lana egitea eskatzen digute; adibidez, aforoarekin. Guk neurriak jarriko ditugu, baina gero jendeak du erantzukizuna.

**Distantzia soziala, maskarak soinean eramatea, garbiketan eta desinfekzioan arreta berezia jartzea... Zer nolako eragina izango du zuen egunerokotasunean egoera berri honek?**
Bezeroak, bere segurtasuna kontuan hartuta, pazientzia handiagoa izan beharko du. Orain ezin da leku batera iritsi eta zuzenean eseri, aurretik garbituta dagoen galdetu gabe. Guk lan karga estra bat dugu orain; izan ere, dena behin baino gehiagotan garbitu behar dugu, dena txukun eta desinfektatuta izan behar dugu bezeroa hor eseri ahal izateko.

Pazientzia handiagoa eskatu beharko dugu, errespetu handiagoa. Ez gaude egoera honetara egokituta; beraz, argi dago ez dugula hain gustura lan egingo eta psikologikoki eragina izango duela. Ohitura kontua da eta, zalantzarik gabe, denok jarri beharko dugu geure alea, bai bezeroek, bai guk.

**GUZTIA ALDATU**

*«Sanferminik gabe, planteamendu ekonomikoa bertan behera geratu da, eta, hortaz, guztia aldatu beharko da».*

**ERRESPETUA**

*«Pazientzia handiagoa eskatu beharko dugu, errespetu handiagoa. Ez gaude egoera honetara egokituta».*

**IREKIERA**

*«'Herriko'-ak uztail bukaera aldera irekiko ditu berriro ateak eta egungo egoerara egokitu beharko gara».*






## Vicente Ramón GIL GUMBAO
KATU TABERNA (IRUÑEA)

# «Con los sanfermines consigues un gran pellizco»



El bar Katu todavía no ha abierto sus puertas. I.A

**El concepto de 'nueva normalidad' está en boca de todos y todas. ¿Cómo han vivido la adecuación a este nuevo contexto?**
Yo todavía no he empezado. Tengo el bar cerrado. Ahora mismo tenemos un ERTE. Yo estoy en el pueblo con mis aitas, que son mayores y no he bajado a Iruñea hasta hace unos días para ver el bar un poco, estar con gente y poco más.

**Tras la suspensión de los sanfermines y teniendo en cuenta el atípico verano que tenemos por delante, ¿cómo ven el futuro?**
No tengo ni idea de lo que puede venir. Comentaba antes con los del bar Oreja que han suspendido almuerzos… Nosotros el 6 siempre almorzamos en el Campana y ya nos han dicho que no vamos a poder hacerlo.

Para el bar es una ostiada. Con los sanfermines consigues un pellizco grande para pagar los atrasos, empezar otra vez de nuevo… lo que es la hostelería en estas calles. Además si a eso le sumas que son bares sin comida… pues los sanfermines te dan un poco de aire. Habrá que ir tirando poco a poco. ¿Cómo? Pues a ver… El bar es casi todo barra, las mesas del fondo las tengo que quitar, me han denegado el permiso de terraza.. Entonces, pues no sé, verlas venir. Aquí ahora mismo estamos en nómina tres personas más otras dos mozas de extra. No sé que vamos a hacer… Si quitan el ERTE igual nos tenemos que ir todos a la calle. Yo me lo tomo con mucha tranquilidad. ¡Ya veremos!

**¿Creen que la clientela está deseando disfrutar del ambiente de los bares?**
Sí, se nota un montón. Hasta ahora el bar ha estado cerrado y la gente tiene muchas ganas. Aquí con lo del metro y medio no puedes dejar entrar a todo el mundo. A eso súmale que los municipales vienen cada dos por tres y pum, multa. Entonces, la cosa es esa; la gente tiene ganas y no les vas a decir que no, que el bar está lleno. Al final es hacer de policía, cosa que a mí nunca me ha gustado y no lo voy a hacer. Habrá que ir poco a poco, pero bueno, ya se verá.


Daniel Unziti, en el interior de la barra del Zuriza. I.A.

## Daniel UNZITI BELZUNEGI
ZURIZA TABERNA (IRUÑEA)

# «La dueña del bar nos ha pospuesto el alquiler»

**Desde que el 14 de marzo empezara el confinamiento, el Zuriza tuvo que echar la persiana durante tres meses. ¿Cómo han vivido todo esta situación?**
Fue tan rápido que se veía venir: empezaron a decirlo en los medios de comunicación y se notó. Yo estuve trabajando toda esa semana y notaba que la gente salía menos, el jueves hubo un poco, pero luego yo el viernes fue muy flojo y el sábado no hubo ni blas. Ya se hablaba de que Sánchez iba a cerrar los bares por decreto. Económicamente tenemos la suerte, bueno suerte tampoco, de que al ser autónomos algo nos han dado y entonces con eso… Al principio no sabes qué va a pasar, cada uno a su casa y ya está, viviéndolo como todos, es una situación rara.

**¿Han tenido que solicitar algún tipo de ayuda para hacer frente a esta difícil situación?**
Nosotros, en principio, no hemos tenido que pedir ayudas. Funcionamos muy al día y con lo que nos han dado por ser autónomos, a tirar. Sí que hemos tenido suerte en el sentido de que la dueña del bar nos ha pospuesto la renta del alquiler. Salió de ella, además. Y luego, como los pagos de autónomos se han pospuesto también, pues bueno, vas tirando.

**Habiéndose suspendido los sanfermines y con un verano atípico por delante, ¿cómo ven el futuro?**
El futuro es incierto. Yo creo que esto irá poco a poco. Lo de los sanfermines es un tema aparte, porque no sabemos cómo va a ser, vamos a tener que improvisar. Nosotros cogíamos cuatro personas y este año vamos a coger dos porque algo habrá, aunque sea diferente. Ahora hay mucha gente que no se va a ir de Iruñea porque no tiene pasta. Depende todo si no se desmadra la cosa… Los sanfermines son una extra para nosotros. Luego, para la gente que contratamos año tras año sí que habrá sido peor, porque cuentan con ese ingreso fijo y este año se quedan sin eso. Nosotros nos quedamos sin extra y trabajando para cubrir los gastos fijos.





**Alberto URRALBURU SOTO**

BODEGAS LEYRE (IRUÑEA)

# «Gracias a los sanfermines podíamos cerrar un mes»



Alberto Urralburu, de Bodegas Leyre, se queda este año sin vacaciones. I.A.

**La denominada 'nueva normalidad' está en boca de todos. ¿Cómo han vivido todo el proceso de desescalada para adecuarse a esta nueva situación?**

Ha sido un proceso muy raro, complicado. Hay que seguir unas normas muy estrictas de higiene. Te tienes que adaptar, no te queda otra, pero en general bien. Además, la gente ha respondido bien.

Abrimos el 25 de mayo. Donde más capacidad tenemos es en la terraza y la gente prefiere exteriores. Los días que ha hecho buen tiempo se ha trabajado bien, pero estos días que ha hecho malo, han sido malos.

**¿Creen haber recibido suficiente ayuda por parte de las instituciones públicas, así como de las asociaciones de hosteleros?**

Las ayudas han sido muy justicas. A nivel de empresa poco. Algo han hecho, pero muy poco por lo menos en mi opinión. Los bares y restaurantes que llevamos muchos años tenemos un pequeño colchón a través del que hemos podido subsistir. Las líneas ICO han ayudado, pero al que le ha pillado un poco prieto, lo ha hundido totalmente.

**Teniendo en cuenta el trabajo añadido que tienen en esta nueva normalidad, ¿cómo está siendo la respuesta de la clientela?**

La clientela está respondiendo bien. Los jóvenes no hacen mucho caso a este tipo de cosas, les da igual, pero en general bien. Hay algunos que por desconocimiento u otras razones hay que estar un poco encima: que no se sienten antes de que lo desinfectemos, la mascarilla para ir al baño...

**¿Cómo le afectar al bar la suspensión de los sanfermines? ¿Y cómo se presenta este verano atípico?**

Económicamente mucho. Gracias a los sanfermines nosotros podíamos cerrar un mes de vacaciones. Este año no hay vacaciones: ni por sanfermines ni por el Covid-19. Los sanfermines son un motor económico muy importante para la hostelería de Iruñea. Respecto al verano, hasta que no se encuentre una vacuna vamos a estar así, sin poder dar al 100%. ¡Y eso es lo que queremos todos!

**Karmele IEREGI IRIGARAI**

LISLORE DENDA (IRUÑEA)

# «Jendea lore eta landare gogoz atera da etxetik»



Karmele Ieregi, lorez inguratuta. I.A.

**Martxoaren 14an konfinamendua hasi zenetik pertsiana jaitsi behar izan duzue bi hilabetez. Nola bizi izan duzue egoera?**

Hasieratik itxi genuen denda. Gero, Amaren Egunaren harira, apiril bukaeran atea itxita egin genuen lan, eta gero dena banatu genuen. Maiatzean astebetez egon ginen berdin eta maiatzaren 11tik aurrera ateak ireki genituen, sarreran mostradore antzeko bat jarriz, gure lokala oso txikia delako. Ekaina bukaeraz geroztik musukoa jantzita eta banaka-banaka sar daitezke bezeroak denda barruan.

Ezjakintasun handiz bizi izan dugu egoera; batez ere, nire zerbitzua ez delako oinarrizkoa. Azkenean, kezkatzen zaituena da zure bezeroak berriz ez bueltatzea. Hala ere, esan beharra dago harritu egin garela, onerako, jendea etxetik lore eta landare gogoz atera delako. Noski, horretarako garaia zen: gure udaberriko salmenta apiril eta maiatzean izaten da. Aurten ez dugu apirilik izan eta maiatza polita izan dugu. Ezin gara kexatu. Igartzen da eguraldi onarekin jendea loreak eta landareak erostera animatzen dela.

**Koronabirusa dela eta, orain garbiketan eta desinfekzioan arreta berezia jarri behar duzue.**

Saiatzen gara bezeroei loreak ez ukitzeko eskatzen baina, hala ere, ukitzen badute, desinfektatu egiten dugu. Ataria irekita badugu ere, ukitzen badute desinfektatu beharra dugu. Orokorrean, jendeak oso ongi betetzen ditu neurriak. Nahiz eta arraro suertatu, jendea musukoarekin sartzen da.

**Egoera zail honi aurre egiteko, nolabaiteko laguntzarik eskatu behar izan duzue?**

Nik zortea izan dut dagoeneko 34 urte daramatzadalako ofizio honetan. Harrapatu nauen momentua ez da txarrena: ez dut hipotekarik edo bestelako mugarik. Momentu honetan bi pertsona gaude hemen lanean. Ni autonomoa naiz eta nire lankideak ERTEra joan behar izan zuen, apiril bukaeran kendu bagenuen ere. Orain, berriz gertatuz gero, ikusi beharko dugu zer egin. Baina momentuz ez dugu laguntzarik eskatu.






Imanol Azkona, Iruñeko Peñen Federazioko presidentea, Irrintzi peñaren atarian. Idoia ZABALETA | FOKU

**Imanol AZKONA**
IRUÑEKO PEÑEN FEDERAZIOKO PRESIDENTEA

# «Udalak bere kabuz hartu zuen erabakia eta orain arazoak ditu, ez dakielako nola joango den»

Iruñeko peñek ez dute ekitaldirik antolatuko aurtengo sanferminetan, eta ez dute parte hartuko pertsonen pilaketak edo osasun-arriskuko egoerak eragin ditzaketen jardueretan. Horregatik, ez dute pankartekin desfilatuko, ez da txarangen irteerarik izango eta uztailaren 6tik 14ra ez dituzte beren egoitzak irekiko.

I.A. | **IRUÑEA**

Iruñeko peñak sanferminetako parte garrantzitsuetako bat dira. Iruñerriko edonork du ezagunen bat peñaren batean. Iruñeko Peñen Federazioko presidente Imanol Azkonarekin bildu gara aurtengo jaien egoeraz solastatzeko.

**Nola bizi izan duzue sanferminak bertan behera utzi dituen erabakia?**

Hasieran penaz, baina nahiko argi genuen aurten urte zaila izango zela. Bere momentuan, apirilean, jaso genuen berria, Udalak bere kabuz hartuta; ez zuen inorekin hitz egin. Orduan, alde batetik amorrazio puntu batekin, ez sanferminak bertan behera uzteagatik, baizik eta Udalak erabakia bere kabuz hartzeagatik.

Ez zuen sanferminetako mahaia ahalbidetu. Konfinamendua hasi baino egun batzuk lehenago deituta zegoen bilera bertan behera utzi zuten eta konfinamenduan ez zuten egin. Erabakia beren kabuz hartu zuten, baina tira.

**Zer nolako eragina izango du zuen egunerokotasunean?**

Ez pentsa, peñen egunerokotasunean ez du hainbesteko eraginik. Guk, sanferminetan, peñak tabernak izango balira bezala irekitzen ditugu eta jendeak uste du peñen diru sarrera hor dagoela.

Ez da guztiz egia; diru sarrera bat da, baina gu gure bazkideen kuotetatik bizi gara. Orduan, aurten diru sarrera pixka bat txikiagoa izango da, baina ez dut uste eragin handirik izango duenik gure peñetan. Gehiago da sanferminen falta eta horren pena.

**DENON ARTEAN**

*«Sanferminetako mahaia konfinamenduan egin nahi genuen, bertan behera uzteko erabakia hartzeko. Horrelako erabaki bat denon artean hartu beharra dago».*

**Zer dira sanferminak Iruñeko peñentzat?**

Gure jaiak dira eta beti esan ohi da sanferminak «munduko onenak» direla. Guretzat hala dira, baina edozein herritako jaiak bertakoendako diren bezala. Azkenean, gure jaiak dira eta gure lagunekin bizi ditugu. Lagunak eta ez bakarrik kuadrillakoak; peña batekoa bazara, pixka bat zabalagoa da hori eta zure peñakide askorekin jaiak modu berezian bizi dituzu.

Nik uste kaleko giroa dela sanferminen klabea; izan ere, edozein momentutan, edozein lekutan giroa dago eta peñakide batentzat hori dira sanferminak: ongi pasatzeko, lagunekin egoteko, dantzatzeko eta, azkenean, jai giroan murgiltzeko momentua.

**Hilabeteak daramatzazue Iruñeko Udalari sanferminetako mahaia deitzeko eskatzen. Nolako harremana duzue Udalarekin?**

Ez dugu esango onena denik, baina harremana ez da txarra. Komunikazioa egon badago, ematen du peñekin hitz egiteko borondatea badagoela, baina ez dakigu zer nolako eraginkortasuna izango duen horrek.

Guk sanferminetako mahaia konfinamendu garaian egin nahi genuen sanferminak bertan behera uzteko erabakia hartzeko. Uste dugu horrelako erabaki bat denon artean hartu beharra dagoela.

Beste kolektiboekin batera sanferminetako mahaia egitea eskatu genuen, egin zen eta komunikatzeko izan zen, erabakiak hartzeko baino gehiago; sanferminak bertan behera geratu direla esateko, alegia.

Udalak bere aldetik hartu zuen erabakia eta badirudi, orain, arazoak dituela ez dakielako nola joango den. Erabaki hau guztion artean hartu izan balitz, beste egoera bat bizitzen egongo ginateke. Eurak izan dira arazoetan sartu direnak, auzoekin hitz egin dute eta ez dago oso argi zertara jolasten ari diren.

Gure aldetik, gure aldarrikapena izan da beti sanferminetako mahaia antolatzea eta aurreko udalarekin hasi zen elkarlan eta partaidetza horrekin jarraitzea datozen urteetan; egunkarietan

agertzen den albiste izatea baino, zerbait eraginkorra izatea, alegia.

**Nolakoak izan beharko lukete sanferminek?**

Nire ustez, sanferminak, guri gustatzen zaizkigun bezala, badira. Ez osotasunean, baina sanferminak parte hartzaileak dira, anitzak. Sanferminak gero eta feministagoak dira, oraindik bide luzea geratzen den arren, baina urteak daramatzagu horretan lanean eta espero dugu noizbait hori lortzea.

Nik uste dut guri gustatuko litzaizkigukeen sanferminak existitzen direla, baina egia da Udalak ez duela hori aldarrikatzen edo hori luzatzen sanfermin guztietara. Aurten ez dago sanferminik eta ezin dugu programa ikusi, baina argi dago apenas egongo zirela euskal taldeak eta egotekotan leku ezkutu batean, non jendea enteratzen ez bada hobeto.

Peñen aldetik, uste dut, sanfermin horiek existitzen direla. Azkenean, Udalak nahi izan behar du edo, behintzat, denontzat egitea. Bidea geratzen da eta guk horretan lanean jarraituko dugu.

**Zein mezu helarazi nahi diezue iruindarrei bizi garen egoeraren aurrean?**

Arduratsu jokatzeko. Argi dugu gure jaiak, sanferminak, munduko gauzarik onenetarikoak direla, urte osoan zehar momentua iristeko irrikan gaudela eta aurten ezin izango ditugula ospatu. Gogo hori gorde dezatela eta datorren urtean, sanferminak gogo handiagoz har ditzatela, bikoitza disfrutatzeko.

Azkenean, koronabirusaren afera ez da bromazko gauza izan, ez da gripe hutsa, jende asko hil da. Askok ezin izan dituzte beren ingurukoak agurtu eta oso egoera latzak bizi izan dira gure herrian.

Horregatik, ez dugu ekitaldirik deituko sanferminetan, eta ez dugu parte hartuko pertsonen pilaketak edo osasun-arriskuko egoerak eragin ditzaketen jardueretan. Baina 2021ekoak prestatzen hasiak gara dagoeneko.

**ELKARLANA**

*«Gure aldetik, gure aldarrikapena izan da beti sanferminetako mahaia antolatzea eta aurreko udalarekin hasi zen elkarlan eta partaidetza horrekin jarraitzea datozen urteetan; egunkarietan agertzen den albiste izatea baino, zerbait eraginkorra izatea, alegia».*

**ARDURA MEZUA**

*«Iruindarrei helarazi nahi diegun mezua da arduratsu jokatzeko. Argi dugu urte osoan sanferminak iristeko irrikan gaudela, baina aurten gogo hori gorde eta datorren urtean bikoitza disfrutatzeko eskatuko genieke».*



Lanzamiento del txupinazo de Iruñea en una edición anterior de los sanfermines. Idoia ZABALETA | FOKU

## LA ORGANIZACIÓN DE ACTIVIDADES PARA EL DÍA 6 DE JULIO, «UN ACTO DE IRRESPONSABILIDAD»

Desde que el Ayuntamiento de Iruñea suspendiese los sanfermines, las diferentes comisiones de fiestas y culturales de los barrios de la ciudad han denunciado haber recibido una propuesta instando a que los colectivos organicen diversos actos el día 6 de julio en los diferentes barrios de la ciudad.

Agrupadas en Auzoak, una plataforma vecinal que agrupa a las diferentes comisiones de fiestas y culturales de los barrios de la ciudad, han aclarado que la sugerencia recibida desde el consistorio iruindarra es realizada a través de la policía comunitaria de cada barrio y no desde el Ayuntamiento como entidad: «Mientras el Ayuntamiento ante la opinión pública sostiene la idea de no realizar ningún acto en sanfermines, está sugiriendo a las comisiones de fiestas que organicen actos para el propio día 6».

Para esta plataforma, la organización de actividades para el día 6 de Julio constituye «un acto de irresponsabilidad» teniendo en cuenta la situación actual: «Queremos seguir priorizando la promoción de la salud y el cuidado mutuo entre los vecinos y vecinas de la ciudad para salir unidas y fortalecidas de este escenario».

De esta manera, han querido denunciar que a lo largo de los últimos meses se les han prohibido todos los pequeños actos que tenían preparados para las fiestas de los barrios: «En cambio Seguridad Ciudadana autorizará cualquier tipo de evento que podamos organizar el día 6 de julio».

Las comisiones subrayan que la realización de esos actos conlleva una responsabilidad hacia los organizadores, por lo que las posibles consecuencias de los mismos recaerían sobre estos colectivos.

Auzoak ha querido dejar claro que nunca se han opuesto a dialogar con nadie, siempre y cuando las propuestas sean claras y estén todas las cartas encima de la mesa: «Creemos que la coordinación, el diálogo y el trabajo en equipo con los diferentes organismos culturales y populares de esta ciudad, debería formar parte de la tarea diaria del Ayuntamiento».



# MENDEZ MENDE HIRU HANKEN GAINEAN ZUTIK

Txoko bereziak ez dira falta Euskal Herrian eta natura nagusi den guneetan altxor txiki ugari gordetzen dira. Horietako bat Hiru Hankako Artea da, Lizarrerriko Berrotza ibarrean. Otsailean Europako Zuhaitza izendapena lortzeko lehiatu zen hamabost hautagaiekin. Tamalez, bederatzigarren postuan gelditu zen, baina horrek ez dio bere xarman galerarik eragin.

Testua: **Maitane ALDANONDO**



Nafarroako Mendaza herritik gertu dago Hiru Hankako Artea. GARA

Adituek neurtutakoaren arabera, Quercus ilex honek 1.200 urte ditu eta Lizarratik 22 kilometrora dagoen Mendaza herriko erakargarri nagusia da. Ia 16 metro luze, 7,7 metro diametroko enborra, eta zabaleran 20 bat metroko adaburua ditu. Edonola ere, bere adierazgarri nagusia lurretik kanpo gelditutako hiru sustraiek ematen dioten itxura da; bi elkarri lotuta daude 1,40 metroko altuera duen barnehutsa sortuz.

Santa Coloma baselizara bidean Mendaza herrigunetik kilometro erdira dago, urmael batetik gertu. Egarria bertan asetzeaz gain, barrunbea aprobetxatuta, animaliek enbor azalaren kontra hazka egiten zutela erakusten dute artxiboko argazkiek. Eta abereak ez dira handik igarotako bakarrak, zuloa zeharkatzea bertako ohitura baita. Mendazarrentzat zuhaitz berezia da, gizaldiz gizaldi beraien egunerokoaren lekuko izan baita. Bizilagunak sarri joaten dira hura bisitatzera, eta ez dira gutxi asteburuetan bertaratzen diren bisitariak. Bere gerizpean ezkondu denik ere bada.

Egunerokotik haratago, Hiru Hankako Arteak historiako pasarteak ere ikusi ditu. Benito Perez Galdos idazle espainiarrak jaso zuenez, baso soilgune horretan kanpatu zuen gudaroste karlistaren atzeguardiaren zati batek, Tomas Zumalakarregi jenerala buru zuela, Mendazako Guduaren aurretik. 1834ko abenduaren 12an izan zen Lehen Karlistadako borroka hura eta Zumalakarregiren gizonek ihesean irten behar izan zuten.

Urteak ez dira alperrik pasatzen, are gutxiago milurtekoak. Denboraren joan-etorrian haizete askoren kolpeak pairatu ditu arbolak, ageriko kalteak jasanda. 1993an Nafarroako Gobernuak altzairuzko bi torloju jarri zizkion behealdean zabaldutako pitzadura josteko, baina ezin izan zuten narriadura gelditu. Adinaren ajeei aurre egiten lagundu nahi izan diote mendazarrek ere. Hala, 2000an Pedro Alecha eta Elias Asensiok metalezko uztai bat jarri zioten erortzea saihesteko. Bi hamarkada geroago gerrikoak bertan jarraitzen du, eta, arteak, zutik.

### Legeak babestua

Nafarroako legediak babesten du zuhaitza, duen balio paisajistiko eta ekologikoagatik. 1991n monumentu natural izendatu zuten eta 2007an Espainiako Ingurumen Ministerioak zuhaitz zaharren saria eman zion, Estatuko adintsuenetako bat baita.

Aipatutako guztiagatik iazko azaroan 2020ko Espainiako Zuhaitza izendatu zuten eta joan zen otsailean Europako aintzatespen bera lortzeko lehiatu zen hamabost herrialdetako hautagaiekin. Environmental Partnership Association eta Bosques Sin Fronteras elkarteek antolatutako lehiaketan, ordea, bederatzigarren postuan gelditu zen.

## GARAI ETA MUXIKAKO ARTEAK, BIZKAIKO FAMATUENAK

Nafarroan ez ezik, Euskal Herria guztian ere oso zabalduta egon ziren artadiak. Horren adierazgarri dira gaur egun Bizkaian zutik jarraitzen duten Garai eta Muxika herrietako arte ikusgarriak.

Mendazakoa bezala, hauek ere «Quercus ilex» espeziekoak dira. Garaikoa –irudian– Etxeita baserriaren ondoan dago eta oso forma berezia du, belaunaldi askotan egin zaion adarren inausketaren ondorioz. Bere itzalpean 360 ardi inguruko artalde bat aterpetu izan dela esaten da. 19 metro baino gehiagoko diametroa du eta 60 metro baino gehiagoko zirkunferentzia. Euskal Herriko Zuhaitz Berezi bezala izendatua dago. Muxikako San Roman auzoan, bestalde, Urkieta artea dago, hau ere Zuhaitz Berezi bezala izendatua. Zabaleran 26 metroko adaburua du, eta, adar nagusiak oso lodiak direnez, horietako bat egurrezko egitura baten gainean eusten da.








# AGENDA>

## Mungia

### Sukalkia, etxean

Igande honetan, uztailak 5, Sukalki Eguna ospatu beharko lukete mungiarrek Uriguen parkean, baina aurten, osasun egoera dela eta, Jai Batzordeak beste modu batera egitera gonbidatu ditu herritarrak: etxeetatik... familian eta lagunekin. Jai Batzordeak etxean egindako sukalkiaren argazkia bidaltzera animatzen ditu mungiarrak eta jasotako irudi guztien artean, parrila bat, lapiko bat eta 100 euroko bost bonu zozketatuko ditu Mungia bertako dendetan kontsumitzeko. Argazkia webmungia@mungia.eus helbide elektronikora bidali behar da, izen-abizenak, adina, helbidea eta telefonoa jarriz, uztailaren 5etik 7ra bitartean. Zozketa uztailaren 8an egingo du Jai Batzordeak.



## Euskal portuak

### «Zero zabor uretan» kanpaina

«Mater» ontzi-museoak «Zero zabor uretan» kanpainaren bigarren edizioa jarri du martxan eta uztailean euskal kostaldeko hainbat portutara eramango du. Kanpainaren helburua itsas hondakinen arazoa ikusaraztea da, izan ere, covid-19tik eratorritako osasun krisiaren testuinguruan, arazo hori areagotzen ari da, eta eragin larria du ekosistema naturaletan. «Zero zabor uretan» kanpainak zaborrak sortzen diren puntu beltzak azaleratu nahi ditu, aurten hartutako ohitura berri horiei erreparatuz «zaborrik hoberena sortzen ez dena» dela gogoraraziz. Ibilbidea aste honetan hasi da Hondarribian eta 4tik 6ra Getarian egon ondoren, Bizkaia aldera pasako da: Ondarroa (uztailak 7-9), Bermeo (10-12), Portugalete (13-15) eta Bilbora (16-18). Ondoren, Gipuzkoara itzuliko da: Mutriku (19-20) eta Pasaiara (22-24)






## Elorrio

### IV. Eixu Azoka

Eixu Artisau eta Sortzaileen Elkarteak aurten ere azoka antolatu du igande honetan, uztailak 5, Elorrioko Urarka kalean. Salgai egongo diren produktuak, askotarikoak: panpinak, bitxiak, kamisetak, poltsak, umeentzako arropa... Laugarren edizioa da aurtengoa eta, covid-19ak sortutako egoera dela eta, segurtasun neurriak kontuan izanda antolatu dute bai espazioa bai animazioa. Antolatutako ekitaldien artean, aurten Itziar Gamero Elorrioko ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu umeentzat, biak Aldapebeitiko plazan. Lehenengo saioa 11:00etan izango da, eta, bigarrena, 12.30ean. Eixu elkartea orain dela bost urte sortu zen herriko eta inguruetako hamar bat lagunen eskutik, sorkuntzan dabiltzanei leku bat egiteko helburuarekin.

## Iruñea

### El día 6 de julio, a donar sangre

El Banco de Sangre y Tejidos de Nafarroa hace un llamamiento a la ciudadanía para realizar donaciones y aumentar así sus reservas de cara al verano, que suele ser un periodo en el que surgen más necesidades de transfusiones. En Iruñea, el banco estará abierto solo el día 6 de julio, hasta las 12 horas. A partir del 13 de julio se volverá al horario normal y así se mantendrá durante el verano. La Unidad Móvil estará hoy en Larraga y la próxima semana irá a Lakuntza y Zangoza. En Tudela, la unidad de donación de sangre permanecerá abierta hasta el 24 de julio.






# BAZTAN ETA BERTIZ ABENTURA PARKEAK, ASKE SENTITZEKO AUKERA PAREGABEA

Ekainaren 20tik zabalik daude Elizondon eta Narbarten kokatuta dauden Baztan eta Bertiz abentura parkeak. Lehenengoan, Beartzun arroila zeharkatzen duten tirolinak daude, baita ur-parke natural bat, 200 metroko ferrata bidea eta, ausartenentzat, 100 metroko pendulu-salto erraldoia ere bai. Bigarren parkean, 4 urtetik goitiko umeak tximinoen gisan zuhaitzez zuhaitz ibil daitezke segurtasun osoz. Paintball eremua ere badago, helduentzat.

Testua: **Iruñe ASTITZ LARUNBE**



«Aquapark» naturala da Baztango parkeak eskaintzen duen gune erakargarrienetakoa. 6 urtetik gorako pertsonentzat da.
GARA

Pasa den martxoaren 14an ezarritako konfinamenduan, etxeak herritarren lan, bidaia zein lagunekin egoteko espazio bihurtu ziren. Gutxika-gutxika herritarrak kalera bueltatu dira, denboran zehar malgutzen joan diren hainbat muga eta neurriekin.

«Normalitate berri» izendatu duten egoera berri honek pertsona gehienen udako planak hankaz gora jarri ditu. Nazioartera bidaiatzea zaila izango da aurten, bertako turismoaren onurarako.

Joan den ekainaren 20an Bertizarana eta Baztango abentura parkeek ateak ireki zituzten, Nafarroako inguru ederrenetariko batez gozatzeaz gain, bertara hurbiltzen diren guztiek askatasun sentsazioa berreskura dezaten.

BKZ-Navarra Aventura enpresak kudeatzen dituen parke hauek Iruñetik 45 kilometro eta Donostiatik 52 kilometrora daude. BKZ-Navarra Aventura 1993an sortu zen, eta raftinga, piraguismoa, eskalada eta bestelako abentura-kirolen eskaintza zabala duen Euskal Herriko enpresa aitzindarietako bat da. Gaur egun 27 dira urtean zehar bi parke hauetan lan egiten duten profesionalak eta udan 45 izatera heltzen dira.

Parkea handitzeko bigarren fasea diseinatzen ari dira gaur egun; instalazioak berritu eta mota guztietako bezeroentzako abentura jarduera berriak eskainiz, Europa mailako Turismo Aktiboaren eskaintzaren barruan parke garrantzitsuenetako bat bihurtzea dute helburu.

Egungo egoera dela eta, Baztan parkera joan nahi duen edonork, ekintzen erreserba aurretiaz egin beharko du webgunearen bidez (www.navarra-aventura.com) edota telefonoz (659 081 431 eta 609 461 741). Bertiz Abentura Park, bestalde, 10.30etik 14.00etara eta 15.00etatik 18.30era egoten da zabalik egunero, euririk ez bada bederen.

**ERREPORTAJEA**

### Bertiz, lehenengoa

Lehenengo abentura parkea 2003an sortu zuten. Narbarten kokatuta, Bertiz Abentura Park izena eman zioten. Zuhaitzen arteko zirkuituak eta jolasak, tirolina txikiak eta paintball-ean jarduteko aukera du Bertizera hurbiltzen denak.

2018an parkea goitik behera eraberritzeari esker, Europako legedira egokitu zen eta “bizitzako lerro jarraia” izeneko segurtasun sistema ezarri zuten. Sistema honekin, erabiltzailea zirkuituaren hasieratik bukaeraraino, kilometro bateko ibilbidean, segurtasun kableari lotuta egotea ziurtatzen da.

Zuhaitz parkean zailtasun ezberdinetako ibilbideak daude –horia, berdea, gorria, urdina eta beltza– eta 60 joko eta 6 tirolina baino gehiagoz gozatzeko aukera dago. Zuhaitz parkeko ekintzetan 3 urtetik aurrerako haurrek parte har dezakete.

Horretaz gain, paintballean aritzeko aukera ere badago Bertizeko abentura parke honetan. Ekintza honek arrakasta handia dauka lagunarteetan, enpresa sustapenerako ekimen gisa zein ezkondu aurreko agur festetan. Ekintzarako beharrezkoa den material guztia erabiltzaileen esku dago eta jarduera hasi aurretik begiraleak azalduko dituen arauak bete beharko dira paintballean jolastu ahal izateko. Behin ekintza bukatuta, jokalariek Bertiz aterpeko aldagela eta dutxak erabili ahalko dituzte, egunaz, inguruaz eta beste ekintzez gozatzen jarraitzeko.

### Baztan, parke onena

Bigarren parkea Elizondoko Beartzun auzoan dago eta Baztan ibarraren ikuspegi ederra eskaintzen du. 2015ean eraikitako parke honek abentura kirolen parke onenaren Fitur saria lortu zuen.

Parkeak 4 urtetik gorako pertsonentzako jarduerak eskaintzen ditu. Haurrek tirolina-zirkuituan Beartzungo erreka alde batetik bestera zeharkatuz esperientzia ahaztezinak biziko di-



## BAZTAN ABENTURA PARK

• **Tirolina erraldoiak** (Canoping): 4 tirolinaz osatutako zirkuitua (300 eta 460 metroko luzera eta 120 metroko altuera). Ikuspegi zoragarriak. 8 urtetik aurrera.

• **Tirolina txikiak** (Canoping): 4 tirolinaz osatutako zirkuitua (40-45-50 eta 65 metroko luzera eta 20 metroko altuera). Beartzungo errekaren gainean. 4 urtetik aurrera.

• **Arroila-aquapark naturala:** Aquapark natural honetan txirristak, saltoak, rapelak eta ferrata bide bat daude. Arroila txirrista eta saltoen bidez jaisten da (200 metro). 8 urtetik aurrera.

• **200 metroko ferrata bide handia:** Haitz handi bat igoko dugu. Paretan jartzen diren grapa eta soken bidez denbora guztian lotuta egongo gara. 8 urtetik aurrera.

• **Mega pendulua:** Ausartenentzat; plataforma 100 metroko altueran kokatuta dago, eta salto ikusgarri bat egiteko aukera ematen digu, 140 metroko hegaldiarekin. 15 urtetik aurrera.

## BERTIZ ABENTURA PARK

• **Zuhaitz-parkea:** Zailtasun ezberdinetako ibilbideak daude (horia, berdea, gorria, urdina eta beltza), 60 joko baino gehiago eta 6 tirolina.

• **Paintball:** Ekintza hau lagunarte, enpresen sustapen eta ezkondu aurreko agur festetarako aproposa da.

tuzte. Ibilbide hauek lurretik 20 metroko altueran kokatuta dauden 40-45-50 eta 60 metroko tirolinak dituzte.

"Aquapark" naturala da Baztango parkeak eskaintzen duen gune erakargarrienetakoa. 6 urtetik gorakoek blai eginda bukatuko dute hemen; eremu hau uretako jarduerak, txirristak, putzuetarako jauziak, era guztietako rappelak eta ferrata bide txikiak egiteko aproposa da.

8 urtetik gorakoentzat, aipatutako aktibitateez gain, parkean 200 metroko ferrata bide zoragarri bat egiteko aukera dago. Kirol honek eskaladako sentsazio berak bizitzeko aukera ematen ditu, baina segurtasun osoz, horretarako kable sistema berezi batek bezeroa une oro lotuta duelako.

Parkeko bertze ekintza zoragarri bat lau tirolina erraldoien bidez Beartzungo arroila gurutzatzean datza, 220-280-300-450 metroko luzera eta 120 metroko altuera duten tirolinen bitartez (7 urtetik gorakoentzat).

Eta ausartenek 100 metroko altueran kokatuta dagoen plataformatik salto egiteko aukera izango dute penduluan. 15 urtetik gorakoei zuzendutako ekintza honetan, puenting moduko saltoa egingo dute parte hartzaileek eta 140 metroko hegaldia egingo dute amildegira salto egitera ausartzen direnek.

# YA ESTÁ ABIERTA LA INSCRIPCIÓN PARA LOS CAMPAMENTOS DE VERANO MULTIAVENTURA



La Vía Ferrata permite vivir las mismas sensaciones de la escalada pero con total seguridad. GARA

La influencia del coronavirus será evidente este verano. Sin embargo, los más txikis podrán volver a disfrutar de sus vacaciones en los parques de aventura de Baztan-Bertiz. Para garantizar su seguridad y salud, se ha elaborado un protocolo tomando como base las medidas establecidas por las autoridades sanitarias competentes.

Las colonias multiaventura están dirigidas a niños y jóvenes de entre 7 y 15 años que, durante seis días, podrán recorrer tirolinas, cañones naturales, vías ferratas, hacer piragua o recorrer los diferentes circuitos entre árboles.

Los turnos de estancia son de seis días y se desarrollan desde el 26 de junio hasta finales de agosto, tanto en euskera como en castellano (el año pasado participaron más de 1.300 niños y niñas). Normalmente, los turnos se repartirán en función de la edad, para que todos los pequeños disfruten al máximo. Asimismo, contarán en todo momento con monitores de tiempo libre que les acompañarán en su día a día, así como con monitores especializados en todas las actividades que realicen.

Podrán disfrutar de diferentes actividades; desde las tirolinas más pequeñas de 40 metros de largo a las tirolinas de 460 metros y más de 120 metros de altura, con las que cruzarán de lado a lado el cañón de Beartzun. También podrán bajar el cañón con toboganes acuáticos, saltos a pozas, rápeles, vía ferrata...

Todas aquellas personas que quieran inscribirse en los campamentos podrán hacerlo, hasta que se agoten las plazas, a través de un formulario que encontrarán en la página web (*www.navarraaventura.com/campamentos*).

etxenike
Polígono Urrobi
31694 Aurizberri/Espinal
Nafarroa
948 79 04 11
info@etxenike.com
**www.etxenike.com**

**ELABORACIÓN ARTESANA**
ESPECIALIDAD EN DERIVADOS DE PATO, OCA Y AHUMADOS

**ARTISAU-LAN**
AHATE, ANTZARA ETA KETUEN DERIBATUETAN ESPEZIALIZATUAK

www.tga.cc


Argazkia: Idoia ZABALETA | FOKU

**Ladis SATRUSTEGI ALZUGARAY**

LESAKAKO ALKATEA

# «Udan Lesakara hurbildu nahi duenak, natura eta jende hagitz jatorra eta irekia aurkituko du»

Askok sanferminak Iruñearekin lotzen dituzte estuki, baina Lesakan ere, sanferminak gertutik ezagutzen dituzte. Euskal Herriko herri eta auzo ugaritan gertatu bezala, lesakarrek ezinen dute herriko bestez gozatu. GARAn koronabirusaren aferak bertan zer-nolako eragina izan duen ezagutu nahi izan dugu, eta, horretarako, Ladis Satrustegi Alzugaray alkatearekin elkartu gara.

I.A. | **LESAKA**

**Nola izan da Lesakako sanferminak bertan behera uztearen erabakia hartzea?**
Erabakia zaila izan da. Azkenean, lesakarroi eragiten diguten bortz egun garrantzitsuenak dira eta zaila izan da. Hala ere, erraza izan dela erraten dugu ez dugulako bertze aukerarik izan. Ez da kapritxoz hartu dugun erabakia.

**Zer nolako eragina izango du herrian sanferminak bertan behera geratu izanak?**
Lehenengo, pena. Jendeari pena ematen dio. Azken finean, lesakarrentzat urteko egunik garrantzitsuenak izaten dira. Bertzetik, komertzio eta tabernentzat ekonomikoki eragina izanen du.

Horrez gain, animikoki ere eragina izanen du herritarren artean. Azken hilabeteotako egoera pasa eta gero, kosta egiten zaigu sanferminik gabe geratzea, ezin ditugu herriko bestak gozatu.

Hala ere, orokorrean, lesakarrek ulertu dute zein den egoera eta badakite hartu beharreko erabakia zela. Gainera, erabakia eragile ezberdinekin hartu zen: txosna batzordea, ostatuak, komertzioak, kultur eragileak... Denen artean hartutako erabakia izan da.

**Jairik ezean, bestelako ekitaldirik antolatzea pentsatu duzue?**
Sanferminetan ez dugu deus eginen. Udan zehar bai eginen dugula zerbait. Alde batetik, udako zikloa izanen dugu, auzo ezberdinetan egingo dena eta kulturala izanen dena: antzerkiak, txotxongiloak, bertso saioak, musika, dantzak...

Ekintza hauek Sorgintxulok, herriko talde kultural guztiak elkartzen dituen bilguneak, antolatu ditu eta aurtengo berrikuntza izango da, batetik, aurretik dugun bestelako udarengatik, eta, bestetik, aurreko urteetan ez zelako horrelakorik egin.

**Zer nolako eragina izaten ari da koronabirusaren afera herrian?**
Jendea etxean egon da eta ni hagitz kontent nago jendearen erantzunarekin. Lesakarrak ederki portatu dira. Egia da, azkenean, denbora luzea izan dela etxean egon garena eta, ondorioz, jendeak behar zuela dagoeneko kanpora atera. Denbora tarte honetan Herriko Etxea guztiz itxi ez den arren, presentzia murriztu dugu eta online egin dugu lan.

"Normalitate berria" delako honekin, etxetik ateratzen hasi garela-eta, denetarik dago. Nik

batzuetan pentsatzen dut erlaxatuegiak gaudela, baina hemen eskualdean kasu potenterik ez dugulako izan.

**Egoera berri honen aurrean, zer nolako neurriak hartu dituzue Udaletik?**
Herri ttipia gara, ezin gara denera iritsi eta saiatu garena izan da baimenak materako orduan kontzientziazio lana egiten, besteak beste. Denek aski ongi dakite zer egin behar duten. Zaintza sarea antolatu zen behar zuenari laguntzeko, eta auzolanean egindako musukoak etxeetan banatu ziren.

Kultura alorrean, berriz, hitzarmen bat egin zen eta dirulaguntzak mantentzen saiatu gara. Bai kultura zinegotziak bai kultur taldeak lan eta esfortzu handia egin dute beren partidak mantentzeko.

Beste alde batetik, herriko ostatu eta komertzioekin kanpaina bat jarri dugu martxan: kontsumo bonu batzuk atera ditugu, non udalak herritarrei bortz euro gehiago ematen dizkien erosketak egin ahal izateko.

**Badirudi aurten, egungo egoera dela eta, barne turismoa indartu egingo dela. Lesaka prest dago helmuga turistiko bihurtzeko?**
Lesakak potentzial handia du, badugu zer eskaini udan herrira hurbiltzen den jendeari. Gure eskaintzaren ezaugarri nagusiak natura eta herria bera dira: alde batetik guk mendi pila ditugu inguruan, pista pila daude eta aisialdi mota hori eskaini dezakegu. Eta bestetik, bertako jendea zein herriko eraikin arkitektoniko aberatsak ezagutzeko aukera ere bada.

**Udan Lesakara hurbildu nahi duenak, zer aurkituko du bertan eta inguruetan?**
Lesakara hurbildu nahi duenak, natura eta jende hagitz jatorra eta irekia aurkituko du bertan, eta karriketan barna murgilduz herria ezagutzeko aukera izanen du. Turismo bulegora hurbilduz gero, herriko zein inguruko zonaldeko informazioa jaso eta bertan dagoen burdinaren museoa bisitatu ahalko du.

Horrez gain, inguruko herriak ezagutzeko egun bat hartzea gomendatuko nioke Lesakara hurbiltzen den edonori: Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udalerri guztiek osatzen ditugu elkarrekin Uraren Bailarak eta, azkenean, gure herriaz gain, inguruko herriak ezagutzera animatzen ditugu bisitariak, zonaldea ezagutzeko. Txirrindulaz hiru bailarak konektatzen dituen bide berdeetan zehar ibili daiteke, gure zonaldeko potentzialetako bat dena.

**JAIRIK GABE**

*«Sanferminak bertan behera geratu izanak animikoki ere eragina izanen du herritarren artean. Hala ere, lesakarrek ulertu dute zein den egoera eta badakite hartu beharreko erabakia zela»*

**UDAKO ZIKLOA**

*«Sanferminetan ez dugu deus eginen. Udan zehar bai eginen dugula zerbait. Alde batetik, udako zikloa izanen dugu, auzo ezberdinetan egingo dena eta kulturala izanen dena: antzerkiak, txotxongiloak, bertso saioak, musika, dantzak...»*



Dantzaris de Lesaka interpretan el baile «Zubi gaineko dantza» en una edición anterior. Jagoba MANTEROLA | FOKU

## AYUNTAMIENTO Y HOSTELEROS, COMPROMETIDOS CON LA SEGURIDAD DEL PUEBLO

Los días comprendidos entre el 6 y el 11 de julio son días de alegría, de fiesta para los y las lesakarras. Al igual que en la mayoría de los barrios, pueblos y capitales de Euskal Herria, los sanfermines de Lesaka han sido suspendidos, también, debido a la situación provocada por el Coronavirus. A diferencia de lo ocurrido en Iruñea, en Lesaka, esta decisión ha sido adoptada por consenso entre el ayuntamiento y los diferentes sectores del pueblo, como la comisión de fiestas, la hostelería, los comercios, la comisión de txosnas o los agentes culturales.

El Ayuntamiento de Lesaka ha destacado el gran esfuerzo social realizado a lo largo de los últimos meses: «Hemos perdido mucho y hemos aprendido mucho en los últimos meses y todos los ciudadanos hemos hecho grandes esfuerzos».

Asimismo, la corporación ha recordado que el riesgo aún no ha desaparecido y por ello han animado a la ciudadanía a seguir manteniendo el compromiso con la seguridad: «Pedimos que no se organicen eventos especiales por la situación sanitaria que vivimos. Estos pueden traer la aglomeración de gente, que pueden ayudar a la reactivación del virus».

Por su parte, los hosteleros de Lesaka se han comprometido a cerrar los bares a las 02:00h durante los días más importantes del pueblo. Los bares no quieren crear zonas de riesgo y son conscientes de la responsabilidad que tienen en este contexto. Así lo manifiestan en una nota publicada recientemente: «Los bares están abiertos, pero no habrá sanfermines. Apoyamos la decisión adoptada por el ayuntamiento junto a lo diferentes sectores populares. Hoy en día no hay condiciones para que las fiestas se desarrollen con normalidad», concluyen.



# GELTOKI, REFERENTE DE LA ECONOMÍA SOCIAL, LA SOBERANÍA ALIMENTARIA Y LA CULTURA

Punto de partida y llegada de muchos y muchas, la antigua estación de autobuses de Iruñea guarda un amplio recuerdo en el imaginario de la ciudad. Las mas txikis, que ya no son tan txikis, recordarán las despedidas por la puerta grande de los gigantes y cabezudos o, las más curiosas, haber ido el 31 de diciembre a este mismo lugar en busca del «hombre que tenía más ojos que días tiene el año».



Geltoki cuenta con una oferta gastronómica diferente, saludable y de calidad, teniendo una carta con productos de la tierra, frescos y de temporada, ecológicos y de comercio justo.
Jagoba MANTEROLA | FOKU

Texto: **Iruñe ASTITZ LARUNBE**

La que en el año 2007 dejara de ser la estación de autobuses de Iruñea, la que fuera una de las primeras estaciones de Europa en incluir las taquillas y las dársenas de la estación en el mismo edificio, alberga hoy, después de estar diez años en desuso, un parque infantil y aun espacio de economía social, solidaria y cultural.

Geltoki es el nombre de este proyecto ubicado en la zona de las taquillas y cafetería de la antigua estación de autobuses de la capital navarra, un espacio demandado por una amplia base social, representada en asociaciones y entidades sociales e impulsado por la Asociación Geltoki Iruñea y el equipo de Gobierno municipal de la pasada legislatura.

Desde la apertura pública del espacio en junio de 2018, el proyecto Geltoki se ha consolidado como referente de la economía social y solidaria, la soberanía alimentaria y la cultura en Iruñea. Muestra de ello son todos los reconocimientos en forma de premios recibidos en los ámbitos de la economía social, la sostenibilidad y la cultura, el interés de otras ciudades del estado en conocer y replicar el proyecto o las subvenciones recibidas por el proyecto desde instituciones como el Gobierno de Nafarroa, el Servicio Navarro de empleo o el Ayuntamiento de Iruñea.

### Una nueva forma de gestión

La gobernanza de Geltoki está respaldada por dos entidades, una asociativa y otra operativa, la primera se realiza desde la Asociación Geltoki Iruña, que reúne a cinco entidades promotoras y más de 30 colaboradoras, y que cumple con la función de representar el proyecto ante el Ayuntamiento; así como asegurar los fines y la estrategia del centro.

EL PROYECTO SE RIGE POR VALORES COMO LA COOPERACIÓN, EL COMPROMISO CON EL ENTORNO, LA EQUIDAD, EL «NO LUCRO» O LA CREACIÓN DE EMPLEO DIGNO.

La parte operativa, en cambio, es gestionada desde la Cooperativa de Iniciativa Social Geltoki. Esta cooperativa gestiona las actividades del centro, tanto comerciales como las culturales a través de 14 personas que trabajan en este espacio.

Día a día, la asociación y la micro-cooperativa trabajan adaptando al proyecto la filosofía que marca la Carta de Principios de la Economía Solidaria, que incluye valores como la cooperación, el compromiso con el entorno, la equidad, el «no lucro», la creación de empleo digno o la sostenibilidad ambiental.

### Oferta gastronómica

Una parada imprescindible que cualquiera que se acerque a Geltoki tiene que hacer es en el área de restauración. Desde la cafetería y la cocina promueven la soberanía alimentaria a través de una alimentación con valores, así como una cultura gastronómica sostenible y saludable.

Cabe destacar la presencia que los productos ecológicos, verduras y hortalizas de la huerta navarra, productos “kilómetro 0”, productos frescos y de temporada tienen en la amplia oferta gastronómica de este espacio.

Este proyecto de valores sociales, solidarios y ambientales fomenta en su día a día la cocina sin desperdicio y la restauración sin sobras, que tiene como objeto repensar la forma de elaboración y procesado de los alimentos para, así, evitar al máximo el desperdicio de alimentos.

Geltoki cuenta con una oferta gastronómica diferente, saludable y de calidad, teniendo una carta con productos de la tierra,




frescos y de temporada, ecológicos y de comercio justo. Además, tienen una amplia oferta con alternativas para personas vegetarianas y veganas.

Dentro de la oferta gastronómica, las personas que se acerquen a este espacio podrán disfrutar de desayunos saludables, pintxos de la tierra elaborados todas las mañanas, platos del día y meriendas justas y saludables. Este espacio ofrece una magnífica opción para todas esas comidas y cenas familiares, de cuadrilla o de trabajo. Además, desde 2019, Geltoki ha apostado por ofrecer cerveza artesana de barril. Para ello, producen tres variedades de su propia cerveza artesana con la colaboración de una cooperativa cervecera local.

El bar-cafetería de Geltoki se mantiene abierto durante todo el año de lunes a jueves, de 09:30 a 22:00h, los viernes de 09:30 a 00:00h y los sábados, de 11:00 a 00:00h. Los domingos y festivos, el área de restauración permanece cerrado. Ahora, con la llegada del verano, Geltoki permanece abierto de 10:00 a 17:00 de lunes a jueves, manteniendo el fin de semana el mismo horario que el resto del año.

ESTE ESPACIO OFRECE UNA MAGNÍFICA OPCIÓN PARA COMIDAS Y CENAS FAMILIARES, DE CUADRILLA O DE TRABAJO, ADEMÁS DE PLATOS DEL DÍA, DESAYUNOS Y MERIENDAS JUSTAS Y SALUDABLES.

# CEVICHE DE BACALAO Y CALABACÍN

Cada vez es más habitual encontrar en las cartas y menús de los restaurantes platos elaborados como el ceviche. Este plato consiste en pescado, marisco o carne marinada en aliños cítricos. Se trata de una receta muy sencilla y perfecta para el verano.

INGREDIENTES (4 pers)

- 250grs bacalao
- 1 calabacín
- 1 boniato cocido
- 1 cebolleta
- 1 mazorca de maíz negro
- Cilantro

Para la salsa o leche de tigre

- ½ Cebolleta
- Un trocito de apio
- ½ diente de ajo
- Un trocito de jengibre
- El zumo de 2 limones
- Las hojas de una rama de cilantro
- 300ml de agua muy fría
- Un chorro de aceite de oliva
- Sal

## Elaboración:

• En primer lugar, procedemos a la elaboración de la salsa o leche de tigre. Para ello, colocaremos en un recipiente la cebolleta, el apio, el ajo, el jengibre, el cilantro y les añadiremos el zumo de limón, el agua muy fría, el aceite de oliva y la sal. Trituraremos muy bien todo el contenido que tenemos en el recipiente y lo colaremos con la ayuda de un colador fino y lo apartaremos.

• El siguiente paso será cortar los ingredientes principales. El bacalao desalado lo cortaremos en taquitos de 1x1 cms y el boniato en taquitos de 3x3 cms. Mientras, con la ayuda de una mandolina, cortaremos el calabacín muy fino. Por último, cogeremos la cebolleta y la cortaremos en juliana.

• Después, echaremos el maíz negro en una cazuela y tapado con una tapa lo pondremos en el fuego hasta que se explote y sazonamos.

• Dispondremos de todos los ingredientes en el plato y vertemos la leche de tigre.








**Asier ETXEPETELEKU LACASA**
ARRANO OSTATUA (LESAKA)

# «Aurten, uda hilabete aurreratu da Lesakan»

Lesakako Udalak eta herriko eragileek aho batez hartu dute sanferminak bertan behera uzteko erabakia, aurten baldintzarik ez delako betetzen. Hala ere, Asier Etxepeteleku itxaropentsu ageri da, herriko nahiz inguruko bisitariekin lan egin dezaketelako uda honetan. Are gehiago, dagoeneko lanean ari direla dio: «Aurten uda hilabete aurreratu da».



Asier Etxepeteleku, ostatuan lanean. GARA

Iruñe ASTITZ LARUNBE | **LESAKA**

**Zer nolako eragina izango du sanferminak bertan behera geratu izanak?**
Edozein ostaturentzat herriko bestarik gabe geratzea galera nabaria da, urteko diru sarreren zati garrantzitsu bat hor egoten baita. Azken urteetan kontsumo eredu eta ohiturak aldatu egin dira Euskal Herrian ere, eta bestarik gabe geratzeak ezegonkortasuna handitu eginen du, noski. Covid ondorengo jendarte berrian ez dakigu ze ondorio izango diren, ohituretan, joeretan... Horrek kezka handiagoa sor dezake tabernarien artean.

Baina argi dugu ere ezin direla sanferminak modu normal batean ospatu, ez dagoelako horretarako baldintzarik, aurreko hilabeteetan bizi izan duguna ikusita, ezin gara arriskatu, hilabete hauetan ikasi dugunak zerbaitetarako balio behar digu; bertze alorretan bezala, bizitza erdigunean jartzen badugu, zaintzari lehentasuna emanez, sanferminak ezin dira ospatu. Lesakan herri erabakia izan da, kontsentsuzkoa. Udalak herri eragileekin batera hartu du, denon adostasunarekin, eta tabernak ere ados gaude.

**Tabernari askok dio lan karga handitu egin zaiela egoera berri honetan, eta langileak kontratatu behar izan dituztela horri aurre egiteko. Zuen kasua al da?**
Gurea ostatu ttiki bat da; beraz, ez dira hain zorrotzak edo handiak bete beharreko neurriak; lantaldeak egiteko modukoak dira, arreta eta dedikazio handiagoa eskainiz, hori bai. Aldaketa bat, bai, nabaritu dugu, aurten uda hilabete aurreratu dela; ikasleak herrian, herritarrak kanpoko herrietara ezin joan, dena itxita eta bertan behera utzita... herrian gelditu da jendea, ez zegoelako ia deus egiteko aukerarik.

Horrela, udako ordutegia ekainaren 1erako martxan genuen; lankide bat gehiago egunero. Honek udari begira esperantza ematen digu agian bestak bertan behera utziagatik uda aprobetxatzeko moduan egonen garela, herriko nahiz inguruko bisitariekin lan egin dezakegula. Osasun krisiak jendartean utziko dituen ondorioek bide berriak jorratzera eramanen gaitu agian; etxera eramateko eskaintza, egunezko eskaintza eta kontsumoa... ohitura berrietara egokitu beharko gara halabeharrez.

**Bezeroek emandako erantzuna nolakoa izaten ari da?**
Egia erran, ez dugu inongo kexarik alde horretatik. Guk lehenengo ireki genuen, maiatzaren 11n, terraza eder bat izanda zorte eta pribilegioa dugulako. Bezeroak hagitz eskertuak zeuden, gure egoerarekin bat eginez, lagundu nahirik, konplizitate handiz, eta hori eskertzekoa da. Azkenean bi hilabete itxita egoteak suposatzen duen egoerarekin ulerkorrak izan dira, baita neurri berriak suposatzen dizkigun trabekin ere. Krisi egoeratik beti ikasten da zerbait, aukera berriak irekitzen dira eta sentsazioa izan dugu denak batera egin dugula aurrera, elkartasun batetik.

**HARREMAN BILA**

*«Distantzia soziala eta ostatuak elkarri kontrajarriak dira; ostatu batera ez doa inor distantzia sozialak mantentzera, harreman sozial bila baizik».*

**Behin eta berriz neurri berriak, une oro egin beharreko mahai eta altzari garbiketa, distantzia soziala... Zer nolako eragina izango du zuen jardunean?**
Distantzia soziala eta ostatuak elkarri kontrajarriak dira. Ostatu batera ez doa inor distantzia sozialak mantentzera, harreman sozial bila baizik. Ostatuak ireki ziren momentuan hori kontuan hartuta egin izango zutela pentsatzen dut.

Hor ere mila zalantza ditugu, guk eta bezeroek, jarrera egokia zein den jakitea ez delako erraza, pertsonen izaeraren arabera ere hagitz desberdin bizitzen baita jendearekiko kontaktu maila.



